



**ERRENTERIAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA KULTUR ANIZTASUNAREN
NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA**

2001eko azaroaren 2an Aniztasun Kulturalari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala onartua izan zen aho batez, kulturen arteko elkarrizketa bakearen bermerik onena delako uste osoarekin. Adierazpen horretan, besteak beste, aniztasun kulturala “herritarron ondare amankomun”tzat balioetsi zen.

2023ko Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna baliatuz, Errenteriako Udalak herrian bizi diren hizkuntza eta kultura guztien eta haien eramaile diren pertsonetik aitortza publikoa egin nahi du. Baita, bakearen bermerik onena delakoan, herriko kultura anitzen arteko elkarrizketa ahalbidetu ere, azken urteotan irekitako bide emankorrean sakonduz.

Bizi dugun testuinguru konplexuan komunitate sena indartzea da herri gisa aurrera egiteko dugun bermerik handiena. Zentzu horretan, gure herrian bizi diren jatorri anitzetako herrikideen aut-antolakuntza ahalegina aitortu nahi du Udalak maiatzaren 21 honetan, erraza ez izanagatik ere, asko direlako azken urteotan haien artean elkartu eta elkarteak sortzeko apustua egin duten komunitateak, haien jatorriko kulturaren ernamuinetik Errenteriari ekarpena eginez.

Errenteriako Udalarentzat altxorra da gero eta elkartegintza zabal eta anitzagoa izatea herrian; batetik, jatorri anitzeko komunitateekin modu antolatuan harremana eraikitzea ahalbidetzen duelako horrek; bestetik, elkarte bakoitza badelako gure herria den komunitate anitzari arnasa eta auspoa eskaintzen dion eragilea.

2023ko maiatzaren 21 honetan, beraz, komunitate sena indartzeko apustua egiten duten herritar horiek aitortu nahi ditu Errenteriako Udalak, jatorrizko herriari zein egun bizileku duten Errenteriari ekarpena egitea lehenetsi duten horiek guztiak.

Hori horrela, Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen du:

- Bizikidetzaren linguistiko eta kulturalaren bidean herriko eragile ezberdinekin lanketa bateratuak garatzeko, nagusiki Elkarbizitzarako eta Gizarte Ekintzarako Udal Kontseilua baliatuz horretarako.
- Errenteriako herritar oro eskubide eta aukera guztien jabe izan dadin lanean jarraitzeko, herritarraren jatorria edo kultura edozein izanik ere, herrikide hauei herritartasun osoa aitortua izan dakien.
- Kultura ezberdinen arteko topaguneak sortzen jarraitzeko, kulturen artean sinergiak



sorraraziz eta ekimen bateratuak sustatuz. Horretarako espazio esanguratsu izango dira Lekuona Fabrika edota Emakumeen Etxea.

- Hezkuntzaren esparruan herriko gazteenekin lanketak egiten jarraitzeko, Errenteria kultur aniztasunarekiko errespetuan hezteko ahaleaginean.
- Errenteriako hizkuntzen aniztasuna balorean jartzen jarraitzeko, hizkuntza oro aitortuz eta ezberdinen arteko topaguneak sortuz, hizkuntzen mapa abiapuntutzat hartuaz eta BADALAB hizkuntza berrikuntzarako laborategiarekin elkarlanean jardunaz.
- Gure herriko aniztasun kultural eta linguistikoa bistaratzeko ekimenak burutzen jarraitzeko, egun honen harira osatutako programazio zabalaren gisako ekimenak antolatzen jarraituz.



**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERRIA CON MOTIVO DEL DÍA
INTERNACIONAL DE LA DIVERSIDAD CULTURAL**

El 2 de noviembre de 2001 se aprobó por unanimidad la Declaración Universal de la UNESCO sobre la Diversidad Cultural, con el convencimiento de que el diálogo intercultural es la mejor garantía de la paz. En ella se valoró, entre otras cosas, la diversidad cultural como “patrimonio común de la ciudadanía”.

Aprovechando el Día Internacional de la Diversidad Cultural de 2022, el Ayuntamiento de Errenteria quiere hacer un reconocimiento público a todas las lenguas y culturas que conviven en el municipio y a las personas que las hablan, así como propiciar el diálogo entre las diferentes culturas del pueblo, a modo de mejor garantía de paz, profundizando de esa manera en el fructífero camino abierto los últimos años.

Reforzar el sentido de comunidad en el contexto complejo que vivimos es nuestra mayor garantía de progreso como pueblo. En este sentido, el Ayuntamiento quiere reconocer el esfuerzo en la autoorganización de los conciudadanos de origen diverso que viven en nuestro país, porque, aunque no es fácil, son muchas las comunidades que en los últimos años han apostado por asociarse entre ellas y crear asociaciones, aportando a Errenteria lo mejor de su cultura de origen.

Para el Ayuntamiento de Errenteria es un tesoro el hecho de que el asociacionismo sea cada vez más amplio y diverso en el municipio, por un lado porque permite construir una relación directa con comunidades de origen diverso, y por otro, porque cada asociación es un agente que enriquece la comunidad que es nuestro pueblo.

En este 21 de mayo del 2023, el Ayuntamiento de Errenteria quiere reconocer a aquellos ciudadanos y ciudadanas que apuestan por reforzar su sentido de comunidad.

En este sentido, el Ayuntamiento de Errenteria se compromete a:

- Trabajar conjuntamente con los diferentes agentes del municipio en el camino de la convivencia lingüística y cultural, principalmente a través del Consejo Asesor de Convivencia y Acción Social.
- Seguir trabajando para que todos los ciudadanos y ciudadanas de Errenteria tengan todos los derechos y oportunidades, independientemente de su origen o cultura, y les sea reconocida su plena ciudadanía.
- Seguir creando espacios de encuentro entre diferentes culturas, generando sinergias entre



ellas y promoviendo iniciativas conjuntas. Para ello se contará con espacios emblemáticos como la Fábrica Lekuona o la Casa de las Mujeres.

- Continuar trabajando con los y las más jóvenes de la localidad en el ámbito educativo, esforzándonos en educar a Errenteria en el respeto a la diversidad cultural.
- Continuar con la labor de poner en valor la diversidad lingüística de Errenteria, reconociendo todas las lenguas y creando espacios de encuentro entre diferentes, tomando como punto de partida el mapa de lenguas y colaborando con el laboratorio de innovación lingüística BADALAB.
- Continuar con las actividades de visibilización de la diversidad cultural y lingüística de nuestro pueblo, continuando con la organización de iniciativas como la amplia programación elaborada con motivo de este día.